

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 11 / 479. zenbakia



Arruriaga errebaleko azken testigua

Arkua txukundu eta plaza egingo dute

IKASTAROA: OSASUNAREN AUTOGESTIOA/6 • EUSKADIKO ITZULIA: 2004KOA BERGARAN HASIKO DA/10

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

ATREBENTZIA EZPADA / Zer moduz moldatzen zara euruekin? Arazorik izan dozu?



ARIADNA ARANZABAL
36 urte

Momentuz ondo nabil. Hasi-eratik pezetak kendu eta euruekin hasi naiz. Nahiko ondo moldatu naiz eta ez dot, momentuz, behintzat, inongo arazorik euki.




MARIA ANGELES QUINTAS
36 urte

Gaur hasi naiz europa era biltzen. Orain arte pezetak eduki ditudu, baiña gastuak. Momentuz ez dot arazorik eduki. Kontu gehixagok inon bihar naiz, berrixa dalako, baiña, bueno.




CELIA VEGA
58 urte

Euruekin oso gaizki arretatzen naiz. Zentimuekin asko nahasten naiz. Oso berdina eta txikiak die txanponak. Galduta nago; baiña bueno, oraindik denbora gutxi goiaz eta...




PEDRO ERRAZKIN
75 urte

Ez dot arazorik eduki. Baiña badaezpada tentuz ibiltzia hobe, kanbixuak jasotzeko orduan eta... Kalkuladoria aldian eruten dot, baiña esan doten moduan ez dot arazorik eduki.



JOSE MARI IGARTUA
66 urte

Bastante gaizki. Oraintxe puntuak tabakua erostera jun naiz eta esandakua zentat zan jakin ez. Dana dala, poliki-poliki jungo gara ikasten, ondiokan gauza berrixa da-eta.



ELIAS CARPINTERO
53 urte

Momentuz oso ondo, kanbixora emon dostena jaso besteik ez dot egin-eta. Pezetak dauzkat ondiokan, eta horrek gastu artian horretekin nabil. Laister hasiko naiz euruekin.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZAKARRONTZI GUTXI Kexa hori helarazi digu herritar batek duela gutxi. Kruz Gallastegi kalean zabarrontzi gutxi dagoela, hain zuzen ere. Aipatutako kalean hainbat taberna egonik, jende ugari ibiltzen da bertan. Badirudi joan-etorri horretan kalea nahiko zikin geratzen dela eta herritar horren esandakoaren arabera, zabarrontzi gehiago jarriz gero, garbiago egongo litzateke, akaso. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

Santa Ana parkea

Santa Ana parkeko berritze lanak aurrera doaz. Pasabide berria eta plazatxoak egitea onartu du Udalak.

Iker Azagirre txapeldun

Bergarako pilotari gazteak Gipuzkoako banakako txapelketa irabazi zuen Gabonen atarian.

Antzerki saioa Novedadesen

Gaur, 22:30ean, "Oihanaren legea" antzerki lana egingo du Hika taldeak Novedades-en.

ASTEKODATUA

35

SAN JOXEPEKO MEMORIA TAILERREAN DIHARDUTENAK

Hogeita hamabost gizon eta emakume ari dira San Joxepe elkar-teak antolatutako memoria tailerrean. Ikastaroan, memoria hobetzeko teknikak ikasiko dituzte izena eman duten lagunek.

BESTEKE SANA

“

Hori egiten saiatzen gara Nina eta biok. Guk artista modura daukagun esperientziari esker,

modu objektiboagoan gidatzen ditugu, izan ere, badakigu hau, nolabait, 'gezur handi' bat dela, ez da guztiz erreala, gertatzen ari da, baina zoriak eragin du hau guztia. Arrakasta ez da eurak hobereak direlako, ezta gutxiago ere. Telebista horrelakoa da, eta *Operación triunfo* "crack" bat da, baina fenomeno hori edozein unetan amildu daiteke. Horregatik da oso garrantzitsua oinak lurrean izan ditzatela. Badakite oso ondo prestatu beharra daukatela hasierako arrakastari eutsi ahal izateko.

MIKEL HERZOG
El Diario Vasco/02-01-06

BERAIEK DIÑO E / Saioa Igartua



Euskararen egoera

Euskal Herriko unibertsitateetan ez da karrera edo lizentziatura bat osorik, hau da urte guztiak euskaraz ematen. Leioako kanpusean, esaterako, lehenengo bi ikasturteetan klase denak euskaraz ematen dira, baina bigarren urtetik aurrera hasten dira arazoak, orduan hasten baitira hautazko ikasgaiak, eta hauetako asko erdaraz dira, hortaz ikasgai hauek erdaraz ikastera derrigortuta gaude. Gure ikasketetarako balio diguten apunte eta liburuak ere gehienetan erdaraz jasotzen ditugu, inork ez baitu horiek euskaratzeko lana hartu. Gainera, hori guztia gutxi balitz, orain dela gutxi onartutako unibertsitate lege berria dela eta euskararen egoerak ez du hobera egingo, seguruenik txarrera egingo du.

Baina zoritxarrez badaude EAEko unibertsitateak baino egoera kaskarragoan daudenak, Nafarroako unibertsitatearen kasua da hau, baina azken honen

kasua ez da harrizkoa, Nafarroako Gobernuak euskararen aurka hartu dituen neurriak kontuan hartuta, bertan ezin da euskaraz ikasi, eta publikoetan pribatuetan baino zertxobait gehiago ikasi badaiteke ere, oraindik oso gutxi ikasi ahal da.

Gero nork sinetsiko dio Sanz jaunari euskara maite duela dioenean? Nik ez behintzat.

Iparraldean, egoera Nafarroan baino hobea da, baina hala eta guztiz ere, egoera nahiko kaskarra da, kontuan hartuta ofizialtasunik ere ez duela euskarak hantxe.

Beraz, euskaraz karrera oso bat ikastea ikasle ororen eskubidea da eta ikasten laguntzen dioten liburu zein apunteak euskaraz edukitzea ere bai.

Horretaz guztiaz gainera, euskaraz ikastea, gazteleaz zein beste edozein hizkuntzatan ikastea bezain duina da, eta horregatik ez digute urratu behar euskaraz ikastea eskubidea. Gure ondorengoek ere unibertsitateetan euskaraz ikastea aukera izan dezaten nahi dugu.

"Euskaraz ikastea beste edozein hizkuntzatan ikastea bezain duina da. Ez digute euskaraz ikastea eskubidea urratu behar"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERRIGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILERAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martín Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizabar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 11
PUY. Barrenkale 25... 943 76 16 87
ZAPATUA, 12
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05
DOMEKA, 13
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05
ASTELEHENA, 14
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63
MARTITZENA, 15
MOZOS, San Pedro 4... 943 76 12 15
EGUAZTENA, 16
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
EGUENA, 17
PUY. Barrenkale 25... 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Ambulatorioa (txanda)... 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa... 943 76 62 46
Ertzaintza... 943 76 53 40
Osasun etxea... 943 76 24 40
Asepeyo... 943 76 16 43
Pakea... 943 76 13 49
Angiozarko medikua... 943 78 90 27
Antzuolako medikua... 943 76 62 23
Odol emaitzak... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak... 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak... 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea... 943 76 62 46
Udal Artxiboa... 943 77 91 32
Igerilekuak... 943 76 20 51
Kultura etxea... 943 77 91 58
Liburutegia... 943 77 91 62
Kirolegia... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza... 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia... 943 76 14 92
Erregistroa... 943 76 13 15
Jardun... 943 76 36 61
Idolaz... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk... 943 76 62 71
Postetxea... 943 76 26 85
Bedelkar... 943 76 04 68
Akulu AEK... 943 76 05 18
Udal euskaltegia... 943 76 44 53
Bergarako notarioa... 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina Domekak: 10:30, 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:15.
San Pedro Domekak: 20:00.
Angiozar Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Sierbak Domekak: 19:30.
Osintxu Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu Domekak: 10:30.
Ubera Domekak: 10:30.
San Juan Domekak: 11:00.
Elorregi

URTE-MEZAK
Santa Marina Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

1927AN JAIOTAKOAK

1927an jaiotako bergararrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte urtarrilaren 26an. Egun horretan, 13:30ean elkartuko dira txikiteoa egiteko, eta 14:30ean, bazkaria egingo dute Zumelaga jatetxean. Bazkarirako izena ematea Euskadiko Kutzako bulegoetan egin daiteke (2.000 pezetako depositoa ordaindu beharra dago).

1956AN JAIOTAKOAK

1956an jaiotakoaren afaria urtarrilaren 26an Txuringo jatetxean. Afaltzera autobusean joateko, frontoian elkartuko dira 20:30ean. Izena ematea 943 76 48 63 zenbakian.

PEÑA ATHLETICEN ZOKKETA

Peña Athleticen zokketan 1.071 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Gabon saskia jasoko du.

BERGARA K.E. REN ZOKKETA

Bergara K.E. ren Gabonetako zokketan 5.729 zenbakiak eskuratu du lehen saria, eta bigarren saria 3.635 zenbakiarentzat izan da.

LOKATZAREN ZOKKETA

Lokatza Ziklismo Eskolaren zokketan 8.795 zenbakiaren jabeak irabazi du lehen saria eta 2. saria 6.536 zenbakiarentzat izan da.

JARDUNEN AGENDA

JARDUERAK GAZTETXOENTZAT
DBH1 eta DBH2ko gaztetxoentzat jarduerak antolatuko ditu Jardun elkarteak, urtarrilaren 19tik maiatzera bitartean. Ekitaldiak zapatu arratsaldetan egingo dituzte, 17:00etatik 19:00etara. Izena ematea (18 euro edo 3.000 pezeta) urtarrilaren 14ra arte egin daiteke. Argibideak Jardunen.


URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soralue aurrean), Matxiategi (Mizpildik okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Txibisto aretoa itxi zuten 1991ko abenduan

1991ko abenduaren 14an azken kontzertua antolatu zuten Txibisto aretoa. Ian Gillan eta Mamma's Boys izan genituen bisitari. Txibisto 1984ko azaroan ireki zuten San Juan auzoan, eta talde ezagun mordoa igaro zen bertatik. Ondoren galdaragintza lan-tegia jarri zuten bertan.



BERTAKO BERRIAK / Juan Martin Elexpuru

"Imintziñua"

Aurpegiz, nahiz eskuz, nahiz bestela egindako keinua.

-Aitta-zanak bajaukan esaera ori: imintziñua besteik eztauke ume onek.

-Orrek aren zera oso edarki eitten dau aren jestua, aren kiñua ero, aren imintziñua ero, aren plantia ero.



GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK

'AMERICAN PIE 2'

ZUZENDARIA: J.B. ROGERS. AKTOREAK: JASON BIGGS, SHANNON ELIZABETH, ALYSON HANNIGAN.

HARIA. Estatu Batuetako unibertsitate batean ari den gazte talde bat da filmeko protagonista. Uda elkarrekin igaroko dute eta gazteen arteko lehen sexu harremanak iritsiko dira...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTAUZZIOA: ●●●●●



HAUGIROA!

MINIMOA -2 °C Martitena, 8

MAXIMOA 16 °C Eguena, 3

ASTEKO EURIA (l/m²) 10,5 L

Table with columns for date (Eguaztena, Eguena, Egubakoitza, Zapatua, Domeka, Astelehena, Martitena), Max, Min, and Euria.

San Juan auzoan jasotako datuak

'CLARA Y ELENA'

ZUZENDARIA: MANUEL IBORRA. AKTOREAK: VERONICA FORQUÉ, CARMEN MAURA, JORGE SANZ, ALEXIS VALDES.

HARIA. Zine-klubeko emanaldian Manuel Iborra zuzendariaren azken filma ikusteko aukera. Clara eta Elena izaera ezberdina duten ahizpak ditugu, eta hainbat urtetan bananduta egon ondoren, berriz elkartuko dira.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Eguenean, hilak 17, 20:00etan.

PUNTAUZZIOA: ●●●●●

ETXEPARE-BILINTX LIBURYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

HIRIGINTZA/ Lanek zazpi milioi pezeta inguruko aurrekontua dute eta gastua 2002ko aurrekontuetan jasoko da, seguruenik

Arkua mantendu, eta plaza txiki bat eta sarrera berria egingo dituzte Errotalden

MONIKA BELASTEGI

Santa Ana ermita ondoko eraikina botatzean agerian geratu zen XVI. mendeko arkua mantendu, arkua luzitzeko inguru txukundu eta Errotalde parkeko sarrera berria egiteko proiektua onartu du Gobernu batzordeak. Aurrekontua zazpi milioikoa da.

Gobernu batzordeak onartu berri duen proiektua Iñaki Berasategi aparejadoreak egin du. Proiektuaren xedea da Errotalde parkean sarrera-irteera berria egitea eta plaza txiki bat eraikitzea, ermita ondoko eraikina botatzean agerian geratu zen arkuaren ondoan, hain zuzen.

Eraikin hori Errotalde parkeko harrizko hesiaren kontra zegoen, eta eraikinerako sarrera parkearen kanpoaldetik zuen, Bolurako aldatatik. Hain justu ere, sarrera hori berreskuratuko da.

PLAZATXO BERRIA

Gaur egun dagoen malda konpontzeko, harrizko eskailera bat egingo da sarrera horretatik eraikiko duten plazaraino. Eta plaza duela hilabete gutxi aurkitu duten XVI. mendeko arkuaren eta arkua eusten duen hormaren ondoan egongo da. Plazatxoari dagokionez, hormigoizko losa handiak jarriko dituzte. Losa horiek bata bestearen artean zazpi zentimetroko tartea izango dute, belarra jaso ahal izateko bitarte horietan. Azken baten, plazaren helburua da arkuaz gozatu ahal izateko ingurune aproposa sortzea.

Horrez gainera, plazatik Santa Ana ermitara dagoen tartean ere malda dagoenez, eskailerak egingo dituzte hori ekiditeko. Eta protagonismo handiagoa eman nahian, arkua argiztatzeko bi foku jarriko dituzte lurtean.

Lan horien guztien aurrekontua zazpi milioi pezeta ingurukoa da. Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziaren esanetan, gastu hori aurtengo aurrekontuetan aurrez ikusiko



IÑAKI ITURBE

Arkua eta hura eusten duen harrizko horma XVI. mendekoak dira.

da, seguruenik; hori da, behintzat, asmoa.

SANTA ANA ETA ERROTALDE PARKEA

Proiektu horren sorburua Santa Ana ermita ondoan zegoen eraikina bota zutenean agerian gera-

tutako arkua da. Hasiera bateko helburua eraikina botatzea zen. Izan ere, Udalak aspalditik izan du Santa Ana ermita eta Errotalde parkea konpontzeko asmoa; hiru fasetan konpontzeko asmoa: lehenengo fasean ermitaren estalkia

konpondu zuten. Ermita ondoko eraikina botatzea bigarren faseko lana zen, eta fase berean ermita barrualdetik konpontzeko asmoa ere bazuen Udalak. Hala ere, Diputaziotik dirulaguntzarik jaso ez eta atzeratu egin da

ermita barrutik konpontzeko asmoa. Hirigintza zinegotziaren esanetan, baina, berriro egingo dute eskaera Diputazioan. Hirugarren fasean Errotalde parkea ordenatzeko asmoa dute Udal agintariak.

Arruriaga errebaleko azken lekukoa da arkua

Bergara sortu zenean, XIII. mendean, hiru kale zituen, eta denborarekin handituz joan zen, muin haren inguruan errebalak sortzearekin batera. Horietako bat Arruriagako errebala dugu. Bi kalek osatzen zuten: bata, egungo Arruriaga kalea; bestea, Burdiñatetik hasi eta Santa Ana pasatu arte errepedearen bi ertzetan eraiki zituzten etxeek sortu zutena.

Udal museologoaren esanetan, itxura guztien arabera Arruriagako errebala XV. menderako gorpuztua

zegoen, eta ziurra da, 1500. urterako Elosurako bidea eta Aranerreka artean dauden lurretan etxebizitza bat zegoela. Orain azaldu den arkua dagoen eremuan, hain justu ere.

Museologoak gehitu duenez, gauza ziurra da, dokumentazio historikoak hala egiaztatzen baitu, XVII. mendean Errotalde jauregiko jabeak jauregiaren inguruetan zeuden errebaleko etxeak erostera joan zirela. Baita erosten zituzten neurrian bota edo errausten zituztela ere, euren helbu-

rua zelako Errotalde jauregia libre eta etxe gabeko inguru zabal batez inguraturik egotea. Hori dela eta, orain azaldu den arkua eta hura kokatuta dagoen horma sendoa antzinako Arruriaga errebaleko etxe baten arrastoak direla pentsa daiteke. Hau da, etxea errautsi egin zela jauregiaren inguru libre uzteko eta errautsi zen etxearen alboko fatxada aprobetxatu egin zutelako, haren gainean etxe berria eraikitzeko: bota berri dutena, hain justu.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA


*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



Gizonezkoek lisatzen, josten edota janaria prestatzen ikasiko dute. Emakumeek iturgintza, elektrizitatea edota brikolajea.

HEZKUNTZA/ Izena emateko epea irekita dago Udaleko Ongizate Zerbitzuan

Gizon-emakumeek etxeko ardurak trukatzeko tailerra

MONIKA BELASTEGI

Ongizate sailak bi ikastaro antolatu ditu. Bata gizon eta emakumeek etxeko ardurak trukatzeko tailerra. Hau da, ohituraz emakumeek etxean egin dituztenak gizezkoek ikasteko, eta alderantziz. Bestea osasunaren autogestioan sakontzeko ikastaroa.

Etxeko lanak zein ardurak trukatzeko tailerra antolatu du Udaleko Gizarte Ongizateak. Normalean etxean emakumeak egiten dituen lanak gizonen irakastea dute helburu tailerrok, eta alderantziz, gizezkoek etxean egin izan ohi dituzten lanak emakumezkoek ikastea. Hori horrela, honakoak irakatsiko dizkiete emakumezkoek tailer horietan: iturgintza, elektrizitatea, brikolajea eta etxeko ekologia. Gizo-

nezkoek, berriz, jostungintza, lisatzea, sukaldaritza, garbiketa eta etxeko ekologia. Hala ere, tailerrek ez dira itxiak, eta emakume edo gizon izan, bi tailerretako edozein egiteko aukera ere izango da.

Tailerak hilaren 14an edo 21ean hasiko dira (taldea osatu bezain pronto), eta plaza mugatuak direnez lehenbailehen komeini da izena ematea. Ikastaroa astelehen eta eguaztenetan izango da, 19:00etatik 21:00etara, bost aste iraupena izango du eta dohainik da. Izena Gizarte Ongizateko bulegoan eman dezakezue edo 943 779125 telefonora deituta.

OSASUNAREN AUTOGESTIOAN SAKONTZEKO IKASTAROA

Osasunaren autogestioan sakontzeko zabalkunde eta prestakuntza ikastaroa antolatu du Udaleko Ongizate Sailak. Sumendi

elkarteko kideak arduratuko dira ikastaroaz, eta besteak beste honako gaiak landuko dira: osasunaren autogestioa, bizi-higie-nea, elkarri laguntzeko ikuspegiak eta alfabetatze emozionala. Saioak astean bi egunetan izango dira, astelehen eta eguaztenean, 19:00etatik aurrera, Kultura Etxean. Lehenengo saioa datorren astelehenean izango da, hilak 14 (Gaixotasuna: sendatze-prozesu adimentsua), eta azkena martxoaren 25ean; beraz, hamar bat aste iraupena izango du.

Bestalde, osasunaren ikuspegi ezberdina landuko da astelehen edo eguaztenetako saioetan: astelehenetako saioan ikuspegi fisiko eta sozialetik landuko da osasuna. Eguaztenetan, aldiz, ikuspegi psikologiko eta sozialetik. Interesa duen edonork har dezake parte saioetan aurriz izena eman gabe, eta doanekoak dira.

LABUR

Udaleko langileak urriaren 12a eta abenduaren 6a lanegun izatearen alde

Udaleko langileak ez daude ados ohar baten bidez adierazi dutenez- Gobernu taldeak urriaren 12a eta abenduaren 6a jaiegun izateko hartutako erabakiarekin. Udal langileek azaroaren 28 eta 29an egindako batzarretan erabaki zuten Gobernu taldeari eskatzea aipatu bi egunak -lehena Espainiako festa nazionala, eta bigarrena konstituzio eguna- lan egun modura hartzea. Baita Udalak Eusko Jaurlaritzari gauza bera eskatzea ere. Udaleko Gobernu taldeak, baina, ez ditu eskaerok onartu. Arrazoia honakoa da: indarrean dagoen legediaren arabera Estatuak jarritako jaiegunak dira, eta Administrazioak indarrean dagoen legedia errespetatzeta derrigortuta daude. Langileentzat, aldiz, jai horiek ospatzea inposatutako marko legala onartzea da, Hegoaldeko herritarroi autodeterminazio eskubidea ukatzen digun markoa, euren hitzetan.

LOGSE bukatu ondoren ikasleek dituzten aukerak aztertzeko hitzaldiak Ipintzan

LOGSE legeak ezarritako Batxilergo berriko lehen promozioak maiatzean bukatuko ditu ikasketak Ipintza institutuan. Hori dela eta, aurrera begira ikasleek dituzten aukerak aztertzeko hitzaldi sorta antolatu du Ipintza institutuak. Hitzaldiak Ipintzako aretoan izango dira 19:00etan: hilaren 14an, Arrasateko Unibertsitateko Javier Mendiluze eta Iñigo Ramirez de Okarizek egongo dira; hilaren 15ean, Miguel Altunako zuzendari Jose Mari Larrañaga, eta hilaren 17an, EHUKo Isaac Barrio izango da hizlaria.



Salgai daude Debaguneko egutegiak

Debagunek, Debagoieneko Euskara Elkarten Elkargoak, 2002 urteko egutegiak kaleratu ditu. Urtero bezala, egutegiak ibarreko herri guztietako antzinako argazki bana jasotzen du hila-bete bakoitzeko. Irudikoa, esaterako, martxoko hilabeteari dagokio, eta bertan Bergara ikus daiteke, San Antonio auzoa, hain zuzen ere.

Egutegiak 400 pezeta balio ditu, eta eskuratu nahi izanez gero, Berrigara aldizkariko erredakziotik (Barrenkalea 33) edota Jardun elkartearen bulegotik (Errotalde jauregia) pasa zaitzekete. Jarduneko bazkideek, berriz, etxean jasoko dute gaurtik aurrera.

Bergarako Udala

Bergarako Udala lehiaketa-oposizio bidez Obra eta Zerbitziburua kontratatzerako doa.

Izangaien baldintzak:

- Ingeniari edo Arkitekto Teknikoa, Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoa edo pareko titulua izatea edo titulua lortzeko eskubideak ordainduak izatea.
- Euskara 4. Hizkuntza Eskakizuna.

Instantziak aurkezteko epea:

2002ko urtarrilaren 15eko eguerdiko 13:00ak arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2002ko urtarrilaren 2an



OILAGORRA
TABERNA


Barrenkalea 21 BERGARA



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA



943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

ELKARRIZKETA

MARIO SANZ/DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ELKARTEKO KIDEA

“Gure elkartearen helburua da ordua heltzean lasai hiltzen uzteko adierazpena arautzea”


MONIKA BELASTEGI

Mario Sanz Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkartearen kide da. Abenduan, Bizi Testamentuen Erregistroa egitea eskatu zuen Udalean. Elkarteaz eta haren helburuez egin dugu berba Sanzekin.

Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkartearen kide zara. Zertan oinarritzen da?

Elkarteko kideei ezinbestekoa iruditzen zaigu gaixoa izatea prozesu klinikoaren muina. Prozesu horretan, azken borondateen agiriaren bidez, euskal herriarrok gaixotasunean tratamendu medikua jaso nahi dugun edo ez adierazi ahal izatea; gaixotasun atzeraezina baldin badugu edo sendabiderik gabeko gaixotasuna bada, guk aukeratu ahal izatea tratamendua jaso nahi dugun edo ez.

Bartzelonan, Extremaduran eta Galizian onartuta dago elkarteak. Hemen duela hiru urte eskatu genuen onarpena, baina oraindik horretan gabiltza. Ni, esaterako, Bartzelonan naiz kide. Udalean Bizi Testamentuen Erregistroa egitea eskatu duzu.



MONIKA BELASTEGI

“Gutxi barru, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu Bizi Testamentua legez onartzea”

“Italian autobusak antolatzen dituzte Holandara joan eta han hiltzeko. Hori ekidin nahi dugu”

“220 atxikimendu lortu ditut, gehienak gazteenak. Nagusiei, batez ere andreei, kostatu egiten zaie”

Testamentu horren bidez heriotza duin bat izateko nahia adierazten da; lasai hiltzen uzteko adierazpena da. Udalarari eskatu dioguna zera da, testamentu horien erregistroa egitea, azken baten, gure helburuari pisu handiagoa emateko. Testamentua egiteko, adinez nagusia izatea, gaitasun osoa izatea eta testigu bi baino ez dira behar.

Horrez gain, Udalarari beste eskaera bat ere egin diogu: hila-bete gutxi barru Eusko Jaurlaritzan Bizi Testamentua legez onartzea eskatuko dugu, eta Udala atxiki dadin nahi dugu. Oraindik, baina, Udaleko ordezkariak ez digute erantzunik eman.

Zergatik egin zara kide?

Urrats garrantzitsua dela uste dut. Batetik, zure nahia betetzen delako, eta bestetik, eutanasia ekiditen delako. Italian, esaterako, autobusak antolatzen dituzte Holandara, han hiltzeko. Guk hori ekidin nahi dugu.

Hiltzearen dagoen pertsona baten kasuan familiak asko sufritzen du. Gauza izugarriak ikusten dira. Nik ikusi dut horrelako kasu bat, eta izugarria da.

Atxikimendu ugari lortu dituzu?

Bergaran 220 inguru. Gehienak gazteak. Nagusiei, emakumei batez ere, kostatu egiten zaie.



Olentzero arrakastatsua Aranzadi ikastolan



Ohi dugun bezala, joan zen abenduaren 24an **Olentzero eguna** ospatu genuen. Bai plazan eta bai Poligonoan benetan **pozteko partehartzea** izan zen guraso, ikasle eta irakasleen aldetik, eta kaleak alaitu genituen musikaz eta kantuz. Bukaeran ere giro ederra izan genuen salda beroa eta txorizoa dastatzen genuen bitartean. Denak zoriontzeko moduko egun arrakastatsua. **Zorionak eta urte berri on denoi Aranzadi ikastolaren partez.**



ARANZADI IKASTOLA



ZORIONAK ETA SASKI BERRI ON!

Gabonetan ohikoak izaten dira zozketak. Hona hemen horietako hiru. Goian, Txema Jauregi ikus dezakegu, Ariznoa tabernak zozkatutako saskia jasotzen, Naiara Polvorosa tabernariaren eskutik. Abenduaren 22ko loteriaren azken lau zenbakiekin bat zetorren txartelarekin irabazi zuen Txemak saski hori. Eskuinean, Bergarako Askatasunak zozkatutako saskien irabazleak ikus ditzakegu; lehenengo saria, saski ederxeago bat, Jesus Oroizek irabazi zuen, 8.795 zenbakidun txartelarekin; bigarrena, berriz, beste saski bat, Lurdes Unamunok, 6.536 zenbakiarekin. Azkenik, AEK Akulu euskaltegiak abenduaren 24an zozkatutako marisko janaren koadrila irabazlea ikus dezakegu. 589 izan zen txartel irabazlea. Gabonetan izan zuten, behintzat, zer jana eta zer edana irabazleek eta euren etxeok!



MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

BERGARARRAK MUNDUAN

NOELIA ALDAI

25 URTE / ELIKAGAIEN TEKNOLOGOA / VILLAVICIOSA

“Tesia egitera noa Villaviciosako ikerketa zentro batera”

AINZANE IRIZAR

Duela ia bi urte Greziara joan zen Noelia, gero Irlandara eta orain, Asturiasera doa. Ez da, ez, geldi egoten diren horietakoa.

Nekazaritza industrietako ingeniari tekniko eta elikagaien teknologia ikasi zituen Noeliak. Azken ikasturtean, Erasmus izeneko bekari esker, Greziara joan zen, eta bost hilabete egin zituen han ikasten eta laborategi batean praktikan. “Zorte handia izan nuen Grezian; aireportuan Beasaingo neska bat ezagutu eta berarekin hartu nuen pisua”, azaldu digu Noeliak.

Greziatik bueltatu zenean, beste beka bat lortu zuen. Irlandara joan zen eta zazpi hilabete pasa egin ditu hantxe, Dublinen, hain zuzen ere. “Ikerketa zentro batera joan nintzen, haragia ikertzen duen departamentuan praktikak egitera”, diosku Noeliak.

Oso gustura egon zen Irlandan: “oso jatorrak dira irlandarrak, naturalak, hemengo antzerakoak”. Dena dela, gauza batek harritu zuen: zenbat edaten duten; “izugarria da, taberna baten



jarri eta edan eta edan jarduten dute”.

Hizkuntzarekin arazoak izan zituen: “hemen pentsatzen duzu badakizula ingelese, baina hara joatean, asko aldatzen dira gauzak”, gogoratzen du Noeliak. Bestalde, ordutegiak eta janaria, batez

“Oso jatorrak dira irlandarrak; baina, hori bai, izugarri edaten dute”

ere, asko aldatzen ei dira hemendik Irlandara. “Baina, horretan ez nuen arazorik izan, oso ondo moldatu nintzen”, diosku.

Baina, esan bezala, ez da geldi egotekoa Noelia. Orain, Asturiasera, Villaviciosara doa. Behien elikadurak euren koipearen eta haragiaren kalitatearengan zelan eragiten duen aztertu nahi du tesiaren bitartez.

Doktoregotza egingo du hango ikerketa zentro batean. Bere asmoa, baina, tesiaren zati bat Irlandan egitea da. Hiru urte pasako lana dauka.

MINGAINARITIRAKA



Eider Arzelus

JARDUNEKO KULTUR DINAMIZATZAILEA

Eiderrek 23 urte dauka eta hillabete batzuk daroia Jardun euskara elkartian kultura dinamizatzaile lanian. Haur Hezkuntzako ikasketak egin zittuan, baita musikoterapia be.

Zein da kultura dinamizatzaile baten lana?

Ikastaruak, lehiaketak, kotzertuak... kulturalen zerikusia dauken gauzak antolatzea.

Eta hori nun ikasten da?

Ni ointxe nabil ikasten.

Ze egoeratan dago Bergara kulturari dagokionez?

Nere ustez, hobetzeko gauza asko daude oraindik.

Zuk zeuk, ze ekitaldi antolatuko ziñuke gustora?

Egiptoko dantzen ikastaro bat, esaterako; ez dauka gure kulturari zeikusirik, baiña...

Ze musika mota gustatzen jatzu?

Horretan *todoterrenua* naiz, ezin izango neuke mota bakararra aukeratu.

Asteburu baterako plan ideala?

Lagunekin kostaldera eskapadaxo bat egittia.

Denbora librian ze egittia gustatzen jatzu?

Musikia entzutia.

Etxian ondo gordeta daukazun hori?

Eskutitz pare bat.

Eta oroimenian?

Laguntxo bat.

Zure debildade bat?

Jenixo txarra etaratzia kosta egitten jatela.

Eta puntu fuerte bat?

Optimistia naizela, gauzei euren alde positibua topatzen saiatzen naiz.

Ze eskatu jatzu urte berrixari?

Gauza asko: askatasuna, osasuna, lana, dirua, zoriontasuna...


AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Joseba Azkarate

ANBERES / 1985

Bidaia ugari egindakoa naiz, horietako asko lan kontuengatik. Anberesera ere lan kontuengatik joan nintzen. Bidaia bitxia izan zen, anekdota kurioso bat gertatu zitzaidan-eta. Trenez joan nintzen Hendaiatik Parisera, eta gero, Parisen beste tren bat hartu beharra neukan. Tren geltokiko leihatilako ilarran nengoela, nire aurrean gizon kolonbiar bat zegoen.

Frantsesez ez zekiela eta, lagundu egin nion. Gero, trenari iritsi bitartean, kafetegi batera joan ginen biok. Horrelakoetan gertatzen den moduan, ia nora gindoazen, zertara eta horrelakoak kontatzen hasi ginen elkarri. Esan nion lan kontuengatik nindoala Anberesera. Berak, berriz, Amsterdamera zihoala esan zidan, diamanteak erostera. Beti entzun izan dut Brusela dela diamanteak erosteko toki aproposa, eta horixe komentatu nion. Horrela, trenerako txartela aldatu eta Bruselara abiatu zen. Belgikako mugan, poliziek ia nora eta zertara gindoazen galdetu ziguten. Kolonbiarrari susmo txarra hartu eta identifikazioa eta pasaporte eskatu zioten. Hasi zen agiriak ateratzen, eta agiriekin batera, sekulako billete-sorta atera zuen berokiko poltsikotik. Poliziek, hori ikusita, beste poltsikoan begiratu, eta han ere diru mordoa topatu zioten. Agiriak aztertzeko zituzten bitartean, arazo hura konpondu egin behar nuela esaten zidan. Laguntzearen hasi, eta neu ere bere arazoan sartu ninduen, eta gainera, nik konpondu behar niola arazoa! Azkenean, behintzat, aurrera jarraitzen laga ziguten poliziek.



“Kolonbiar bati laguntzen hasi, eta arazoak izan nituen”

“Bueltatuko nintzateke Anberesera, hiria lasai bisitatzeraz”

Anberesera ere iritsi nintzen. Oso hiri ederra da Anberes. Gazez bakarrik irten nintzen, esan bezala, lan kontuengatik joan nintzelako. Baina, berriro bueltatu eta lasai bisitatzeko moduko hiria iruditzen zait.

AINZANE IRIZAR



Anbereseko itsas portu ezagunera joan zen Joseba lan kontuengatik.

**GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

IKUSBI


ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74



Euskadiko Itzulia hainbat aldiz igaro da Bergararik, baina lehenbiziko aldiz izango du etapa amaiera Bergaran 2004an.

TXIRRINDULARITZA

2004ko Euskadiko Itzuliaren lehen etapa Bergaran hasi eta amaituko da

Nazioarteko txirrindularirik onenak izango dira Bergaran bukatuko den etapan

EDU MENDIBIL

Elorregiko Alkartasuna elkarte-
an biltzen den zale talde baten
eta Lokatzaren ekimenez,
2004ko Euskadiko Itzulia
Bergaran hasiko da. Lehenbizi-
ko etapak gure herrian izango
du hasiera eta helmuga.

Lokatza Ziklismo Eskolak iaz
bere sorreraren zilarrezko ezteiak
ospatu zituen, eta Elorregiko zale
talde baten laguntzaz, Euskadiko
Itzuliaren etaparen bat antola-
tzeko aukera aztertzen hasi ziren
Lokatzaokoak uda aurretik. Eus-
kadiko Itzulia antolatzen duen
*Organizaciones Deportivas El Dia-
rio Vasco* erakundearekin jarri
ziren harremanetan, eta azkene-
an, 2004ko itzuliaren lehen etapa

antolatzeke baietza jaso dute.
Lehen etapa antolatzeak 42.070
euro (zazpi milioi pezeta) ingu-
ruko aurrekontua dauka, eta
dagoeneko, Udalak, 25.242 euro-
ko (4.200.000 pezeta) aurrekon-
tua onartu du lehen etapa jaso-
tzearren.

Mikel Larrañaga Lokatzako
presidentearen hitzetan, "2004ko
apirileko lehen edo bigarren aste-
an hasiko da itzulia, eta bezpe-
ratik txirrindularitzako giroaz
gozatzeko aukera izango dugu.
Hasieran azken etapa antolatze-
ko asmoa geneukan, baina herri-
rako, lehen etapa antolatzea inte-
resgarria iruditu zitzaigun, biga-
rren etapak ere Bergaran hasiera
izango duelako. Orain, lehen
etaparen ibilbidea zehaztu
beharko dugu antolatzaileekin.

Helmuga non kokatuko den ez
dakigu oraindik".

IÑAKI CALVO, ESPAINIAKO ZIKLO KROS TXAPELKETARA

Bestalde, Iñaki Calvo 17 urteko
txirrindulari bergararrak, Espai-
niako ziklo kros txapelketan par-
te hartuko du, gazte mailan, dome-
ka honetan Duranan. Iñaki Calvo
ziklo kros denboraldi bikaina egi-
ten ari da, eta Euskadiko selek-
zioarekin arituko da domekan.
Abenduaren bukaeran 3.a izan zen
Gipuzkoako txapelketan, Aizar-
nazabalen, eta Euskadikoan,
berriz, 6. sailkatu zen, Itsasondon.
Domekan 4. izan zen Asteasuko
proban. Espainiako txapelketari
begira itxaropentsu da: "zirkuitua
ezagutzen dut eta ea gauzak ondo
irtetzen zaizkidan".

Emozioa nagusi Gabonetako pilota txapelketako finaletan

E.M.

Gabonetako pilota txapelketa-
ko finalak jokatu ziren aben-
duaren 28an. Ehun bat pilotari
aritu dira maila ezberdinetan,
eta antolatzaileak pozik agertu
dira herriko pilotariek azaldu-
tako mailarekin.

Aurtengo Gabonetako txapelke-
ta azaroan jarri zuten abian, eta
7-14 urte bitarteko gaztetxoek
gain, kadete, gazte eta senior mai-
lako pilotariak izan dira
lehian. Aurten bigarren aldiz
antolatu du Bergara K.E.ko pilo-
ta sailak Gabonetako txapelketa,
helburu nagusia gaztetxoek arte-
an pilotarekiko zaletasuna piztea
delarik. Abenduaren 28ko fina-
letan emozioa izan zen nagusi, eta
ikusle ugari bildu zen Udal Pilo-
talekuan. Honako hauek izan
ziren emaitzak: Mikel Gallastegi
18; Jokin Etxabe 17 (C benjami-
nak); Erik Polanco 18; Gorka Elko-
roiribe 12 (B benjaminak); Beñat
Rezusta 18; Lander Ugarte 2 (A
benjaminak); Aritz Rezusta 18;
Iñaki Igartua 3 (B alebinak); Jon
Perez 18; Julen Iñurrieta 9 (A
alebinak); Beñat Etxezarreta 18;
Ander Plazaola 7 (B infantilak);

Jon Larrañaga 18; Oier Aldai 4 (A
infantilak); Mikel Salegi 22; Ibai
Altuna 13 (kadeteak) eta Asier
Larrañaga 22; Beñat Iñarra 11
(gazteak).

Finalen aurretik *barru* saio
bana egin zuten maila ezberdi-
netan, eta hauek izan ziren ira-
bazleak: Lander Osa, Igor Igartua,
Asier Kortabarría, Gorka Irizar,
Markel Arraiago, Aritz Unzueta,
Markel Aldai, Xabi Azurmendi
eta Ander Gabilondo. Bakoitzak
pilota bat eskuratu zuen sari gisa.

Bestalde, senior mailako fina-
la, urtarrilaren 4an jokatu zuten,
eta Eduardo Samaniego 22-16ko
emaitzarekin nagusitu zitzaion
Igor Gutierrez.

Reyes Azkoitiaren arabera,
"150 partidutik gora jokatu dira
txapelketan, eta nahiz eta azken
orduan presaka eta korrika ibili
behar izan dugun frontoian ordu-
rik ez genuelako, pozik gaude
jasotako erantzunarekin".

UDABERRIKO TXAPELKETA

Orain, Eskolarteko Udaberriko
Binakako Txapelketa antolatze-
ari ekingo dio pilota sailak. Otsai-
lean hasiko da, eta gaztetxoak ari-
tuko dira. Kadete, gazte eta senio-
rrak gaurtik izango dira lehian.



Argazkian, Gabonetako finaletan saritutako gaztetxo talde bat.

KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian
sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real
Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak.
Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez
gainera, **opariak ere lortu ahal izango dituzu**. Anoetako
partiduetarako **sarreraren zozketan parte hartu**, eta bi
pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

**gure taldea bere desplazamenduetako batean
laguntzeko.**

Gainera, **2002ko otsailaren 1a baino lehen
eskatu eta erabiltzen baduzu, CD
zoragarri bat, Txuri-Urdin
abestiaren 5 bertsio berezi biltzen
dituena, eramango duzu opari.**



Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.

kutxa
zure diruaren balio erantsia

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Bicip. Igartua-Komando Piperrak	6-13
Agirrebeña-Mongatxurak	6-6
A Ze Flaxa-Eri.	9-6
Amilotx-Torrekua	3-11
Mongatxurak-A Ze Flaxa	7-5
Kanpazar-Komando Piperrak	9-5
Bar Ugarte-Bicip. Igartua	7-3

C MULTZOA

Bayer-Artusamak	5-4
Pagomendi-Errotagain.	1-10
Timofonika-Argandolas	2-13
Bayer-Dedo Pafarru.	8-7
Artusamak-Ortzi	13-0

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Bicip. Igartua-Torrekua. **Bar Ugarte**
10:30: Agirrebeña-Bar Ugarte. **Bicip. Igartua**

ZAPATUAN, KANPOAN

17:30: Amilotx-Mongatxurak. **Vacalouras**
18:30: Vacalouras-Amoskibar. **Amilotx**

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Txipiron-Artekale pizz. **Amilotx**
10:30: Bar Ganbara-Amilotx. **Eri**
11:30: Bicip. Igartua-Eri. **Bar Ganbara**

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Etengabe-T.H.T. **Irubide**
17:00: Irubide-Bar Canalejas. **Aterpe**
18:00: Aterpe-Bar Bedarreta. **Agirrebeña**
19:00: Kanpazar-Agirrebeña. **K. Piper.**
20:00: K. Piperrak-Torrekua. **Kanpazar**

ARGI IBILI!

GABONETAKO ATSEDENAREN ONDOREN TXAPELKETA BERRIZ MARTXAN

Gabonetan atsedena izan dute Labegaraietako futbito txapelketan ari diren taldeek. Astebukeraren hamabi partidu jokatu dira Kiroldegian. Agirrebeña-Bar Ugarte, Irubide-Bar Canalejas eta Aterpe-Bar Bedarreta norgehiagokak jardunaldi honetako interegarrietakoak ditugu.

PUNTUALTASUNA ESKATZEN DUTE ANTOLATZAILEEK

Antolaketa batzordeak puntualtasuna eskatu nahi die talde guztiei, partiduak agindutako orduan hasteko eta inolako atzerapenik ez egoteko. Era berean, epaileei errespetua izatea eskatzen dute. Bestalde, A Ze Flaxa taldeko Josue Lazkano jokalaririk partidu bateko zigorra bete beharko du.

GORA ETA BEHERA

MONGATXURRAK ETA BAYER

Mongatxurak taldeak 7-5 irabazi zion A Ze Flaxari, A multzoko liderrari. Mongatxurak sailkapeneko 2. postuan da. C multzoan Bayer ozta-ozta nagusitu zitzaion Artusamak taldeari, 5-4ko emaitzarekin.

ORTZI ETA AMILOTX

Ortzi eta Amilotx taldeak iaz baino okerrago ari dira. Angiozarkoek 13-0 galdutako jardunaldian Artusamak-en aurka. Amilotxek ere gol zaparrada jaso zuen; Torrekua 11-3ko emaitzarekin irabazi zion.

GAINBEGIRADA

IGERILEKUAK

Kirol zerbitzuko 2002ko karneta astelehenetik aurrera erabili beharko da

Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, astelehenetik aurrera 2002ko karneta erabili beharko da Agorrosingo igerilekuetara sartu ahal izateko. Interesatuak Kirol Zerbitzura jo beharko dute karneta berrizteko. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

FUTBOLA

Realak 6-0 irabazi zion Bergarari, Gabonetako gazte mailako futbol txapelketako finalean

Realak irabazi zuen aurtengo Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa. Finalerdietan Eibar taldea kanporatu zuten eta finalean 6-0eko emaitzarekin irabazi zioten Bergarari, abenduaren 31n Agorrososinen. Mahoneroek 5-1 irabazi zioten Aloña Mendiri finalerdietan.

ESKUBALOIA

Bergara-Aierru senior mailako partidua domeka eguerdian Labegaraietako Kiroldegian

Edu Orgazek zuzentzen duen senior mailako eskubaloia taldeak Aierru izango du bisitari domekan, Labegaraietako Kiroldegian, 12:15etik aurrera. Mahoneroak sailkapeneko liderrak dira eta bi puntuko alde ateratzen diote bigarrenari.

IGERIKETA

Igeriketa ikastaroak Agorrosinen Kirol Zerbitzuaren eskutik hurrengo astetik

Astelehenetik aurrera igeriketa ikastaroak izango dira Agorrosinen. Hiru maila bereiziko dira: 3 eta 4 urteko umeendako, 5-12 urte bitartekoendako eta 13 urtetik gorakoendako. Izena ematea Kirol Zerbitzuan, 7:30etik 13:30era. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Lengokoak
Ohorezko maila. kadeteak. Zapatua. 15:30. Ipintza.
Bergara-Amaikak Bat
Lehen mailako gazteak. Zapatua. 17:15. Ipintza.
Bergara-Urola
Infantilak. Domeka. 10:30. Ipintza.
Bergara-Aurrera Ondarroa
Bigarren mailako kadeteak. Domeka. 12:00. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-Beasain
Kadete mutilak. Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

ESKUBALOIA

Bergara-Egia
Gazte mutilak. Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
Bergara-Donibane
Kadete mutilak. Domeka. 10:30. Kiroldegia
Bergara-Aierru
Senior mutilak. Domeka. 12:15. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Aurrera (kadeteak)
Bergara-Aurrera (2. mailako seniorrak)
Bergara-Andazpe (lehen mailako seniorrak)

Udaberriko txap. Egubakoitza. 19:00. Ud. Pilotak.
Eskolarteko partidu bat
Bergara 2-Azkoitiako 3 (Infantilak).
Gipuzkoako txapelketa
Bergara-Lizardi Igeldo (2. mailako kadeteak)
Bergara-Murumendi (gazteak).
Udaberriko txapelketa. Domeka. 11:00. Ud. Pilotak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Irun 1902 0 Bergara 2 (Preferente maila)
Bergara 1 Segura 1 (Lehen erregionala)
Eibartarrak 5 Bergara 0 (Neskak)
Bergara 2 Ilintxa 2 (Ohorezko m., gazteak)
Intxurre 2 Bergara 2 (Lehen mailako gazteak)
Real Sociedad 8 Bergara 0 (Oho. m., kadeteak)
Euskalduna 2 Bergara 4 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Beasain 24 Bergara 29 (Senior mutilak)

JOKOZKANPO

Iker Azagirre

PILOTARIA

Elgetako Ozkarbi taldean ari den 17 urteko bergarar pilotariak Gipuzkoako banakako txapelketa irabazi du gazte mailan.

Abenduaren 21ean lortu zenuen txapela, Seguran. Gabonetako opari ezin hobe.

Bai. Belloso bidaniarrari irabazi nion finala, 22-15. Aurretik, ligaskan, bere kontra galdu nuen, baina finalean hasieratik tantuak egitea zen nire asmoa, markagailuan aurretik joatea, konfiantzaz jokatzeko. Gauzak ondo atera zitzaizkidan. Banekien finala gogorra izango zela, eta zorionez txapela janztea lortu nuen.

Zure garaipenik garrantzitsuenak izan da?

Infantil mailan Berrizko lau t'erdiko txapela irabazteak ere ilusio handia egin zidan. Zalantzarik gabe, Gipuzkoako txapela ere oso garrantzitsua da pilota munduan norbait izatera iristeko. Ateak irekitzen dizkizu.

Euskal Ligan ari zara orain. Zein asmorekin?

Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako gazte mailako lau pilotaririk onenak gabilta. Lehenbiziko partidua galdu nuen zapatuan, Elgetan, Lesakako Larralderen aurka, 18-22ko emaitzarekin. Ea txapelketa txukuna egiten dudan.



ARRANO



Taberna

Kruz Gállastegi BERGARA

Larunbat goizetan 10:00etatik aurrera gosariak!



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Mikel Laskurain eta Lierni Fresnedo, senar-emazteak antzezlanean, dira obraren bi protagonistak.

Hika antzerki taldeak Elvira Lindo idazlearen lana euskaraz antzetzuko du

'Oihanaren Legea' antzezlana gaur Novedades aretoan

MONIKA BELASTEGI

Hika antzerki taldeak *Oihanaren Legea* antzezlana ekarriko digu gaur Novedades aretoan, 22:30ean. Elvira Lindo idazlearen lehenengo antzezlana dugu *Oihanaren Legea*, eta emakume batek maitasun kontuez ikasiko dituen lezioak erakutsiko dizkigu.

Hika taldeak gaur Novedades aretoan ekarriko digun lana Elvira Lindo idazle ezagunaren antzerki lan bakarra da. Euskarazko bertsioa Ritxi Lizartzarena da, eta aktoreak Lierni Fresnedo eta Mikel Laskurain bergararra dira. *Guadalupe Salmeron*, *Lupe*, izango da Lierni Fresnedo, eta Mikel Laskurain haren senarra, *Ricky*. *Oihanaren Legea* herri komedia da, esperpentikoa, traumarik gabe kontaturiko desengainu baten kronika. Azken baten, *Guadalupe Salmeron* izeneko emakume batek maitasun kontuetan ikasiko dituen lezioen berri eman go digu.

GIZONEZKOEN EGOZENTRISMOA

Kontsumismoa eta mitologia falsu erromantiko eta sinpleak helburu dituen gizarte honetan, *Guadalupe Salmeron* konturatu egingo da seduzitzeko eta seduzitua izateko dituen gogoek gizonen egozentrismoarekin egiten dutela topo. Lehenik senarrarekin, sexu inhibizioa telebistarekin ordezkatzeko duen senarrarekin. Gero maitalearekin, abentura exotikoen oroitzapenak

harrokeriaz kontaktu baino egingo ez dizkion maitalearekin.

UMOREA ETA DIDAKTISMO ANTIDIDAKTIKOA

Publizitateak eta komunikabideek bultzaturiko narzismoa gure garaietako gizarteak jasaten duen gaixotasun larrienetarikoa bat bezala azaltzen du Lindo autoreak antzezlana horretan. Baita gizaki izatetik urruntzen ari diren buru eta bihotz gabeko gizonen harrapariak ezarritako oihanaren legea ere. Eta horren guztiaren barruan, desioz beteriko

emakumezko heroi hauskorra, gizarte horren aurrean pixkanaka-pixkanaka oldartuz joango dena.

Umore handiz eta didaktismo antididaktiko ludikoarekin jolas-tuz, ikuslea irudimenarekin jolasteko plazerrera berriro hurbiltzea lortzen du *Oihanaren Legea*-k; horretarako, protagonistak bizimodu hobe izateko dituen amets eta desioez baliatzen da. Horrela, antzerkia gure mito eta miseriez barre egiteko balio duen isplu desitxuratzailerak dela erakusten zaigu.

Gizon harraparien oihana

Lupe eta *Ricky* senar-emazteek urteetan egin dute aurrera. Dagoeneko atzean utzia dute zorionaren garai ederra. Eguneroko bizitzan elkarri egindako kargu hartzeak eta utzikeria dira nagusi, nahiz eta oso modu gozoan egindakoak izan. *Lupe*-ren ametsa limurtua izatea da, eta, era berean, hark nori limurtu izatea. Baina senarra erakartzen duen gauza bakarra telebista datelebista aurrean eserita egotea.

Halako baten auzoko bat erakargarria egingo zaio *Lupe*-ri. Bizimodu basatia du eta oso tentagarria egingo zaio *Lupe*-ri. Horrela, burua galduko du, batez ere, senarrak duen bizimodu aspergarriarekin konparatzen duenean. *Indi*-rekin egunero abentura bat bizi izango duela pentsatuko du. Baina urrutiko intxaurrek hamalau, eta *Lupe* jabetu egingo da azken baten hura eta senarra ez direla horren desberdinak.

Horren eraginez, erreakzio bortitza izango du eta zituen loturak hautsita, haren bizimodu afektiboa osatu duten gizonen moduan jokatzeko hasiko da; biktimaren rola alde batera utziko du. Harrapari bihurtuta, hura hasiko da eguneroko bizimoduan oihanaren benetako legea jarraitzen...

Guggenheim-en Arteak Ikasbide proiektua San Martin eskolan

MONIKA BELASTEGI

Arteak Ikasbide proiektua jarri du abian Guggenheim museoak San Martin Agirre eskolan. Manu Muniategiandikoetxea da arduraduna eta ikasleekin lankidetzan eskolarentzat logotipoa sortzea du helburu.

Euskal Autonomia Erkidegoko bederatzik eskola publikotan jarri du Guggenheim museoak abian proiektua. Helburua da ikasleen eta artisten arteko harremana bultzatzea, eta horretarako, bederatzik artista aukeratu eta horiek dihardute ikastetxe bakoitzean proiektua aurrera eramaten. San Martin Agirre ikastetxearen kasuan, Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararra da arduraduna.

Manuren esanetan, proiektuak ikasleen eta artisten lana uztartu nahi du. Horretarako, eguaztentero San Martin ikastetxera joaten da ordu eta erdiz.

Mañolariaren eta San Martingo ikasleen lanaren helburua da ikastetxerako logotipoa sortzea, ez du eta logotipo propioirik

MATEMATIKA, HIZKUNTZAK ETA ARTEA
Logotipoa sortzeko, dokumentazio lan handia egin beharko dute ikasleek. Izan ere, Bergarako herria, San Martin Agirre eta ikastetxearen gaineko informazio ahalik eta gehien bildu nahi dute, logotipo aproposena sortu ahal izateko. Gainera, matematika eta hizkuntza ikasgaiak ere erabiliko dituzte logotipo egokiena aurkitzeko bidean. Hizkuntzako ikasgaiak artxiboak aztertzen, elkarrizketak prestatzen eta kartak idazten ikasteko, Matematikako ikasgaia, berri, maketak egiten, neurriak erabiltzen edo aurrekontuak prestatzen ikasteko. Azken baten hori guztia beharko dute.

Lana ekainerako bukatu beharko dute eta, ikusgai egongo da Guggenheim-en.



Ikasleek adi-adi entzuten dituzte Manu Muniategiandikoetxearen azalpenak.

Mathias Kjellgren organo jotzailea gaur San Pedron

MONIKA BELASTEGI

Mathias Kjellgren organo jotzaile suediarrek kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 20:00etan, San Pedro parrokiaren. Organo jotzaile gazteak sei obra eskainiko ditu emanaldian.

Mathias Kjellgren gaztea hamai-ka urte zituela hasi zen organoa ikasten, eta berehala erakutsi zuen instrumentu horretarako abilezia. Stockholm-en ikasi zuen, Musikako Errege Akademian, eta izen handiko hainbat irakaslearekin ibili ondoren, 1996ko udaberrian, graduatu ondokoa atera zuen, ohore guztiarekin, gainera.

Horrez gain, Stockholm-en eman zuen denboran hainbat master ikasi zituen, Jean Boyer-ekin, Rolande Fancinelli-rekin eta Harald Vogel-ekin, besteak beste. Atzerrian ikasteko hainbat beka jaso izan ditu, eta, iaz, Organo Lehen saria jaso zuen Errege

Akademian. 1996. urteko abuztu-tuan, Organo Diplomarekin sari-tu zuten Santiagon (Musika Kompostela-n).

Hainbat sari jasotzeaz gain, kontzertu ugari ere eman ditu Mathias Kjellgren-ek, beste leku batzuen artean Danimarkan, Finlandian, Islandian, Italian, Espainian eta Ameriketako Suediako irrati eta telebistan ibili izan da, eta hainbat disko kaleratu ditu. 1997. urteko ekainetik, Stockholm-erdialdean dagoen Santa Maria Magdalena elizan egiten du lan organista gisa.

EMANALDI ZABALA

Suediako organo jotzaileak Bergaran egingo duen emanaldia 20:00etan hasiko da, San Pedro parrokiaren.

Sei lan eskainiko ditu Mathias Kjellgren-ek, konpositore hauen lanak, hain zuzen ere: Ch. M. Widor, L. Vierne, J. S. Bach, A. Guilmant, E. Sjögren eta L.J.A. Léfébure-Wely.

E, TXO!

GUREGAIK/ AZTERKETAK

AISIALDI TALDE BERRIAK JARDUNEN ESKUTIK

Urtarrilaren 19an hasita, zapaturo elkartuko dira Kartzela Zaharrean DBH I eta DBH IIko gaztetxoak. Maiatza bitartean, zapatu arratsaldero elkartuko dira bi orduz. Datorren astelehenera arte daukazu izena emateko aukera.

Hamabi eta 14 urte arteko gaztetxoei zuzenduta daude aisialdi tailer horiek, eta gaztetxoek eurek erabakiko dute egitaraua. Bestalde, Jardunen hainbat ekitaldiren antolaketan laguntzaile gisa ere arituko dira gaztetxo hauek. Badakizue, beraz, astelehenera arte daukazu izena emateko aukera Jardunen egoitzan, Errotalde jauregian.

GAZTETXEKO KONTZERTUAK ATZERATUTA

Biharko, zapatua, Gazte-xean aurrez ikusita zegoen Etsaiak eta Parasma taldeen kontzertua atzeratu beharra izan dute. Gauzak horrela, otsailaren 2an, zapatua, izango da azkenean kontzertu hori Bergarako Gaztetxean, gaueko 22:30ean hasita.

GAZTEENDAKO WEB ORRIALDE BERRIA

Gipuzkoako Gazteria Sailak, web orrialde berria estreinatu berri du. Honako hau da orrialdearen helbidea: www.gipuzkoa.net/gazteria, hain zuzen ere. Orrialde horretan gazteriarekin lotutako hainbat gairi buruzko informazioa lortu dezakezue: aterpetxeen ingurukoa, musikari buruzkoa, dirulaguntzen ingurukoa... Eta baita Gazteria Zerbitzuaren plan estrategiko berriari buruzkoa ere.

Badator azterketa garaia unibertsitatean

AINTZANE IRIZAR

Egun gutxi barru hasiko dituzte azterketak unibertsitateko ikasleek. Bergaran ere unibertsitateko ikasle asko dago. Dagoeneko, gogor ari dira ikasleok otsaileko azterketetarako ikasten.

Urduritasuna, kezka, kafea, apunte mordoia mahai gainean, aurrez gehiago ez ikasi izanaren damua... Horiek guztiak eta gehiago pila-tzen dira azterketa garai hauetan ikasle askoren inguruan. Gabonetako oporrak bukatu orduko, liburu eta apunte artean ari dira unibertsitatean ikasten dabilen ikasleak. Urtarrila amaiera aldera hasiko dira azterketekin, eta

otsailean amaituko dituzte, gehientsuenek.

LIBURUTEGIA IKASTOKI

Ikasle horietako askok, etxean ikasi baino, nahiago izaten dute liburutegira joatea. Liburutegiko arduradunen esanetan, Gabonetako oporraldiak amaitu orduko, igarri dute jende asko hasi dela joaten ikastera.

Gela nagusiaz gain, liburutegian badaude ikasteko espreski gertatuta dauden bi gela. Isilean egon beharreko gelak dira, bata besteari trabarik ez egiteko, eta gela horietan dira ikasleek nahiago izaten dituztenak. Horiek txiki geratzen direnean, baina, azterketa garaian, beste gela bat ere egokitzen dute ikasteko.



Jende mordoia joaten da liburutegira ikastera.

AINTZANE IRIZAR

LOTSABARIK/ Gorka Lagoma

“Bizitza bizitzeari ematen diot garrantzia”


AINTZANE IRIZAR

Gorkak 18 urte dauzka eta Batxilergo ikasketak egiten dihardu. Kosta egiten zaio hemendik 20 urtera bere burua imajinatzea, izan ere, momentua aprobetxatzeari ematen dio lehentasuna.

- Txikitari, zer izan nahi zenuen? Albeitaria izan nahi nuen.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua? Ez dakit, baina orain gehiago gustatzen zaizt informatika mundua.
- Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

- Ikasteko.
- Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat. Bada, momentuan bururatsen zaizuna; adibidez, gaupasa egin nahi baduzu, bada, lagun baten etxean lo egingo duzula esatea. Dena dela, orain nahiko askatasun ematen didate.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna? Bizitza bizitzeari, momentua aprobetxatzeari.
- Zure bertute bat? Lagunekin ondo moldatzen naizela, lagunaren laguna naizela.
- Eta hutsune bat? Nire amaren arabera, etxean oso desordenatua naizela.
- Zerk amorratsen zaitu?

- Aitak ikasteko behin eta berriz esateak batzuetan nazkatu egiten nau.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena? Dena dut gustuko, gustura nago nire gorputzarekin.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo? Pertsonaren arabera, atentzioa deitzen duen horri.
- Zer egiten duzu seduzitzeko? Ezer ere ez. Ni naizen modukoa aurkezten naiz beti; gainera, orain arte oso ondo joan zait.
- Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non? Ez dut uste daukadanik; dena dela, izatekotan, nire neskekin izango nuke fantasiaren bat.



ADINA: 18 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa • **ZALETASUNAK:** Saskibaloia eta lagunekin irteeta • **LIBURU BAT:** “Ostegunak”, Jon Arretxerena • **FILM BAT:** “Destino final” • **MUSIKA TALDEA:** NOFX • **KIROL TALDEA:** Tau Ceramica

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Álvarez



ZAHARREN ETXETIK

Hogeita hamabost lagun ari dira San Joxepen antolatutako memoria tailerrean

EDU MENDIBIL

Azaroaren 22an San Joxepen martxan jarritako memoria tailerrean 35 lagun ari dira, bi taldetan banatuta. Ikastaroa urtarrilaren 24an bukatuko da. Raquel Barcenillak dioenez, "memoria, trebatu beharreko muskulu bat da, eta badira memoria hobetzeko teknikak".

Raquel Barcenilla 26 urteko psikologoa Hirugarren Adineko Komunitate Institutuan (ICTE) ari da lanean, eta bera dugu ikastaroko arduraduna. Bere hitzetan, "normala da adin batetik aurrera gauzak ahazten hastea, baina kasu gehienetan ez da larritzekoa. Gertatzen da askok ezagutzen dugula Alzheimer gaixotasuna jasan duen norbait, eta jendea asko kezkatzen da horrekin. Argi utzi behar da ahazte txiki horiek ez dutela zertan demenzia baten eragile izan behar".

Barcenilla oso pozik dago ikastaroak izan duen erantzunarekin: "partaideek interesa eta motibazioa azaldu dute ikasta-

rora etortzeko, eta eskertzekoa da hori". Besteak beste, memoria lantzeko ariketak egiten dituzte, astean bi egunez, martitzenetan eta eguenetan: "memoriaren estrategiak erabiltzen jakin behar dugu: ideiak lotzea, bistaratze ariketak edo kategorizazioak oso baliagarriak dira. Hizkuntzarekin zerikusia duten ariketek ere berebiziko garrantzia dute. Ahazte txikiak saihesten nahiko erraz ikas daiteke".

GIZONEN PARTAIDETZAK GORA

Beste urte batzuekiko gizonen partaidetzak gora egin du eta hori ere azpimarratzekoa da Barcenillaren ustez. Ikastaroan, hala ere, emakumeak dira nagusi. Juan Kruz Azkarate (57 urte) dugu ikasleetako bat. Juan Kruzek adierazi digunez, oso gustura ari da: "nahi baino gehiagotan gauzak ahazten zaizkit, eta interesgarria iruditu zitzaidan ikastarora etortzea. Gauzak gogoratzeko ikasi daiteke, eta horretarako ariketak egiten ditugu. Ikastaroa guztiz onuragarria da eta ibiltzea on den moduan, memoria hobetzea ere ondo etorriko zaigu denoi".



Argazkian, Raquel Barcenilla psikologoa memoria tailerrean ari den taldeetako batekin.

Gida 2002

GAUR, URTARRILAK 11, ZEUREAN

Goiena
Komunitate Zerbitzuak

Bergara
Antzuola
Elgeta

- Gida komertziala
- Partikularren telefonoak
- Intereseko telefonoak

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Udaletxea aurrez aurre dugula, zenbagarren zutabeen daude teila, adreilu eta baldosen moldeak (ezkerreko argazkian)? Eta balantza eta kana bikoak?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Jupiter zuhaitza

Lagestroemia indica

MAITANE ARIZABALETA

Jatorriz txinatarrak eta korearrak den tamaina txikiko zuhaitz edo zuhaixka. Azkar hazi arren, ez ditu 6 metro baino gehiago hartzen, eta ilaratan landatzeko aproposa da.

Landatzeko orduan lur emankorra eta leku eguzkitsua behar du bere biziraupena ziurtatzeko. Era berean, uda luze eta eguzkitsuak behar ditu behar den moduan loratzeko. Ameriketara, hotza hobeto jasaten duten klonak egin dituzte espezie honekin.

Bere jatorrian, baso zabalak eratu arren, Euskal Herrian espezie hau, batik bat, apaingarri gisa erabiltzen da, uztaile eta iraila bitartean panikula lila, arrosa edo zuri ikusgarriak eratzeko baititu. Herrietan, altuera handia hartzen ez dutenez, espaloi txikiko etorbide eta kaleetan (Urdangarin etorbidea) eta isolatu gisa parkeetan (Errekalde), asko erabiltzen den espeziea dugu lagestroemia. Baina zoritxarrez, bolumen txikiko zuhaitza izatean, zenbaitzuk, zuhaitzekiko errespetua galdu eta apurte egiten dituzte, alde batetik bere balore ekonomikoa (oso garestia baita) eta bestetik balore artistikoa zein ekologikoa mesprextatuz.

“Landatzeko orduan lur emankorra eta eguzkitsua behar du biziraupena ziurtatzeko”



E.M.

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Hika antzerki taldeak egubakoitzean Bergaran eskainiko duen lanaren izenburua?

- A/ Laurel eta Hardy zerura bidean.
- B/ Banbulo.
- C/ Oihanaren legea.

2.

Lokatzak zilarrezko ezteiak bete zituen joan zen urtean. Nor da taldeko presidentea?

- A/ Peio Garitano.
- B/ Mikel Larrañaga.
- C/ Iñigo Igartua.

3.

Antzuolan independentzia eguna ospatuko dute. Zein urtetan lortu zuten independentzia?

- A/ 1888an.
- B/ 1702an.
- C/ 1629an.



Super BMn emandako **5.000 pezetako erosketa-bonoa** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRATI ELORTZA rentzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Iratiri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Basarte eta Herri Lagunak kaleetan** / Galde debalde: **1-B, 2-A, 3-C.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Urzante oliba olioia

0,1 gradokoa

2,10€

249 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA


PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



Ur~bide
ITURGIN TZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617



BERGARA
Aitor Alonso
Urtarrilaren 8an 8 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Juan Luis Axpe
Abenduaren 21ean 36 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Eneritz Axpe
Urtarrilaren 3an 12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Imanol Retolaza
Urtarrilaren 4an 6 urte.
Urte askotarako!
Màrina.



BERGARA
Irati Polanco
Urtarrilaren 5ean 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Eukene Labaka
Urtarrilaren 8an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Xabier Berasategi
Abenduaren 21ean 7 urte. Urte askotarako!
Izarra, Josu eta etxeokak.



BERGARA
Alvaro Fernandez
Abenduaren 30ean 7 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Cristina Souto
Abenduaren 22an 7 urte.
Urte askotarako! Maite zaitugu! Familiakoak.



BERGARA
Amaia Bolinaga
Abenduaren 26an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Enara Alberdi
Abenduaren 29an 9 urte.
Urte askotarako!
Jon eta Ander.



BERGARA
Unai Garmendia
Abenduaren 31n 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitxitza Jose Luis
Abenduaren 31n urtebetetzea. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Larrañaga
Urtarrilaren 16an 3 urte.
Urte askotarako!
Miren eta Ainhoa.



BERGARA
Aitzol Gutierrez
Urtarrilaren 13an 9 urte.
Zorionak! Gurasoak eta Mikel anaia.



BERGARA
Ane Morillas
Urtarrilaren 15ean 10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Elene Sasieta
Urtarrilaren 4an 6 urte.
Urte askotarako!
Ariana eta gurasoak.



BERGARA
Amaia Nacias
Urtarrilaren 11n 2 urte.
Zorionak! Ion, gurasoak, Arantxa eta Anita.



OÑATI
Leire Zelaia
Urtarrilaren 5ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Victoria Larrion
Urtarrilaren 12an 81 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Felix Iñarra
Urtarrilaren 23an urtebetetzea. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Koldo Iñarra
Urtarrilaren 27an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Ibane Telleria
Urtarrilaren 18an 5 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



ELGETA
Nora Ugarteburu
Urtarrilaren 13an 8 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.

BABESLEA

Sabonetako opariak egiteko...

ERREBELATUAK Album bat, Kopia index-a eta erroilu bat opari.

ARGAZKIGINTZA DIGITALA eta oro har argazkigintzaren inguruan behar duzun material guztia.

ZERBITZU DIGITALA Erreiratu zaharren eta bestelako konponketak, fotomuntaiak eta abar...

ESKANER ZERBITZUA Argazki, diapositiba edo gardenkiak eskaneatzeko bidea. Curriculumerako, Internetarako, eta abar...

KOPIA DIGITALAK Artxibo informatiko batetik. (Disketea, optikoa, zip-a, CD rom-a...)

ARGAZKI Fotografia

ARGAZKI • Barrenkalea 16 • Tel. / Faxa: 943 76 20 66

Adi! Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

GOXO-TOKI

IRALA 3. Tf. 943 76 12 35
MATXIATEGI 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GIARTZU GIMNASIOA

01-02 EKITALDIA: aukerarik zabalena

Ordua	Astelehena	Martitzena	Eguaztena	Eguena	Eguakitza
07:30	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak	Mantenimendua	Aerobica Abdom./luzaketak	Mantenimendua	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak
08:15	Maria Isabel Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak	Maria Isabel Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa	Maria Isabel Aerobica Abdom./luzaketak	Maria Isabel Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa	Maria Isabel Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak
09:00	Maria Isabel Aerobica Gluteoak Abdom./luzaketak	Maria Isabel Mantenimendu aerobikoa	Maria Isabel Stepa Abdom./luzaketak	Maria Isabel Mantenimendu aerobikoa	Maria Isabel Aerobica Gluteoak Abdom./luzaketak
10:00	Gema Jubilatuak	Luis	Gema Jubilatuak	Luis	Gema Jubilatuak
11:00	Mantenimendua pesen gelan	Makinak Indartze orokorra	Mantenimendua Indartze orokorra Abdominalak	Zirkuitoa Mantenimendua Kardiobaskularra	Kardiobaskularra Abdom./luzaketak
15:00	Luis Stepa Abdominalak Lunbarrak	Luis (15:15) Mantenimendua	Luis Interval Zirkuitoa Gluteoak	Luis (15:15) Mantenimendua	Luis Stepa Abdominalak Lunbarrak Gema
17:00	Gema Stepa Gluteoak Abdominalak Gema	Luis	Luis-Gema Zirkuitoa Interval Luzaketak Gema	Luis Stepa Abdom./luzaketak Gema	Luis-Gema
18:00	Umeendako eta Gazteendako Karatea	Stepa Abdominalak Gluteoak/luzaketak	Umeendako eta Gazteendako Karatea	Aerobica Zirkuitoa-Stepa Indartze orokorra	Umeendako eta Gazteendako Karatea
19:00	Luis-Gema Interval Zirkuitua Grasak-erretzera Gema	Gema Stepa Abdom./luzaketak	Luis-Gema Zirkuitua Prestaketa orokorra	Gema Aerobica Abdominalak Gluteoak	Luis-Gema
20:30	Gema Stepa Abdominalak Lunbarrak	Gema Interval Zirkuitoa Gluteoak Abduktoreak	Gema-Luis Aerobica Abdominalak Lunbarrak	Gema Interval Zirkuitoa Abduktoreak Flexioak	(20:00etan) Stepa Abdominalak Lunbarrak Gema
	Gema	Gema	Gema	Gema	Gema

Pesak eta muskulazioa 07:15etik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara
Defentsa pertsonala zapatuetan 9:30etik 11:00etara

Laster, aktibitate gehiago eta ordutegi zabalagoa!

JU JITSU: defentsa pertsonal berezia

Zer da ju jitsu-a?

Norberaren defentsarako artea da. Antzina samuraiak erabiltzen zuten, eta japoniarrek arma gabeko euren defentsa sistema modura hartu zuten.

Zergatik eskaini behar du Giartzuk jarduera hau?

Bakoitzak bere burua defendatzen eta babeserako sena garatzen ikas dezan. Horrela geure buruaren estimua handituko dugu. Bestetik, arlo honetan gaur egun dagoen hutsunea betetzeko.

Nortzuei dago zuzenduta ju jitsu-a?

Jarduera hau kaleko jendeari zuzenduta dago. Ez dago adin mugarik (15-70 urte). Jarduera honetan aritzeko ez da beharrezkoa sasoitsu egotea ezta arte martzialetan esperientzia izatea.

Nor izango da irakaslea?

Patxi Escribano Lasa bergararra izango da. Espainiar Estatuko lehenengo Sensei irakaslea da. 10 urte daramatza Gasteizen eta Madrilen irakasten, eta ju jitsu norberaren defentsarako Eskoziako elkarterko kidea da.

Noiz izango dira klaseak?

Larunbatetan, goizeko 9:30etik 11:00etara. Lehenengo klasea doan izango da probatu nahi duten guzientzat.



Giartzu

Gimnasioa
Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71

XU XU XU

Narrua • Bakeroak • Kamisetak • Jertseak

belin 2002ak

San Pedro 14. Tel.: 943 76 07 55

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 11 / 96. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Antzuolaren independentziaren 332. urteurrena ospatuko dugu bihar, zapatua

AINTZANE IRIZAR

Ezinbesteko hitzordua bihurtu da antzuolarrondako independentzia eguna. Bihar, zapatua, izango da hori. Urtero bezala, egitarau zabala antolatu dute, denetik egongo da: musika, bazkaria, poteoa, hainbat ikuskizun... Aurten, 332. urteurrena ospatuko dugu.

1629. urtean lortu zuen Antzuolak independentzia. Hori ospatzeko, duela bost urtetik, independentzia eguna egiten da Antzuolan. Goizeko 10:00etan hasiko dituzte independentzia eguneko ospakizunak, herriko txistularien kalejirarekin. Ohiko bazkaria baino lehen, giroan sartzeko, herri poteoa egingo da; 12:30ean hasiko da poteo hori, eta trikitilariak lagunduta egingo da.

14:00etan jarri dute bazkaritarako ordua, eta herriko pilotalekuan izango da, beti bezala. Menua, berriz, denen gustukoa, edo hori izan da, behintzat, antolatzaileen asmoa: lehenengo, paella; ondoren, solomoa; postreerako, berriz, tarta, eta noski, ez dira faltako kafea, kopa eta bestelakoak ere. Hori guztia 12 euroren truke.



ARTXIBOA

Bazkaria bera eta bazkalosterako antolatu dituzten ekitaldiak izango dira independentzia eguneko ospakizun nagusiak.

Aipatu behar da, bide batez, Larrea, Surpe eta Mox tabernetan daukazuela txartelak salgai, dagoeneko ez badira, behintzat, denak agortu.

Urtero moduan, bazkaritara joaten direnak eurak arituko dira zerbitzari lanetan. Antolatzaileek esan digutenez, jende asko ibiltzen da antolatzaileei

laguntzen, bai bazkaria zerbitzatzen eta baita bazkalostean, dena jasotzen ere, pilotalekua txukun-txukun lagatzeko ahalginean.

Era guztietako ekitaldiak egongo dira egun osoan zehar, goizean goiz hasi eta gauera arte

BAZKALOSTEA ALAITZEN

Bazkalostean ere ez da aspertzeko aukerarik izango. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Batetik, herriko dantzariak arituko dira, baita trikitilariak eta bertsolariak ere. Bestalde, herriko koadrila bat baino gehiago ari da egun horretarako hainbat ikuskizun antolatzen.

Baina ez da horrekin amaituko independentziaren urteurrenoko jaieguna. Gauean, 23:30ean hasita, dantzarako aukera izango dugu, Legazpiko DJ baten eskutik, Bigirarekin, hain zuzen ere. Kalebarrengo jaietan, domeka arratsaldea alaitzen izan genuen DJ berarekin.

Azkenik, esan behar dugu, egun horretan baserritar jantziak kaleratzeko eskatu dutela antolatzaileek.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi • Gizarte laguntzailea

Herri bat ala hiri bat?

Danok dakigu, herri baten eta hiri baten artian ezberdintasun gehixago darelako berdintasunak baino, hori ukatuko dabenik ez dago. Hirittan bizi dan jendia ixra beti argumentu berdina erabiltzen dau: "danetik egitteko aukeria topatu zeinke, edozer tontokerixa egindda be iñork ez zaittu ezagutzen...". Hori horrela ez danik ezin geinke esan, baiña, eta herri baten dagon askatasuna? Girua? Laguntasuna? Naturaltasuna? ez noia esatera hiri bateko bizitza interesantia ez danik, guztiz kontrakua, oso aberatsa dalā argi dago. Hala

be, nik neuk, horrela ohitu naizelako eta gustoko dotelako, herri baten bizitzia bezalakorik ez dagola baieztatzen dot. Danok ezagutzen dogu alkar, eta horrek eragozpenak baiño abantailla gehixago dauzka, erreztasunak sortzen dittualako aspektu askotan.

Nere kasuan, adibidez, zentsoko lana dala-ta, datuak batzera-ko orduan, asko lagundu dost biztanliak ezagutziak. Herri-



"Herri baten bizitza bezalakorik ez dago"

ttik.

Beste bentaja bat? Daukun askatasuna. Zertan? Aparkalekuen gaixan, esaterako. Zeiñek

xak, orokorrian, oso ondo tratatu nau (kasu espezialak egon diren arren, normala dan bezela). Momentu guztittan egon da jendia lagun egitteko gertu, eta hori ez dago diruakin ordaintzerik. Bide batez, eskerrak emotia nahi dotsuet danoi zuek eskeiñittako laguntziagai-

ez dau laga kotxia bihar ez dan tokixan, behin besterik ez bada be? Trankil juten gara gainera etxera, errekauek egittera..., badakigulako gruak ez doskula eruango, edota bueltan ez dogula multarik topatuko. Hori alguazillari kritikau biharrian eskertu egin biharko gontzake; ez deixela aldatu gainera, edozein lekutan ez dauke horrelako suerterik-eta.

Nik segi eta segi egingo neuke, bentajak kontaktu eta kontaktu segiko neuke, baiña astekari osua neuk bakarrik beteko neukela-ta, hurrengo baterako lagatzia izango dogu onena.

LABUR

Gizarte laguntzaile bat kontratatuko dute, aldi baterako

Gizarte laguntzaile bat kontratatu nahi du Antzuolako Udalak, oraingo langilearen amatasun baja betetzeko. Lau hilabeterako hartuko dute, printzipioz, langile berria, baina epe hori luzatu egin daiteke. Bide batez, lan-poltsa osatzeko ere erabiliko dute deialdi hori. Antzuolan eta Elgetan lan egingo du gizarte laguntzaileak, orain arte moduan. Interesatuek Antzuolako udaletxera jo beharko dute eskaerak aurkeztera. urtarrilaren 28a baino lehen.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIAK

DYA 943 78 71 57
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 Medikua 943 76 62 23
 Praktikantea 943 76 63 80
 Udaltzaingoa 943 76 62 46
 Ertzaintza 943 76 53 40

UDALA

Udaletxea 943 76 62 46
 Liburutegia 943 76 60 65

BESTELAKOAK

Idolaz 943 78 60 12
 Herri ikastetxea 943 76 62 68
 Jubilatuen elkarte 943 76 62 71
 Abadetxea 943 76 64 16
 Anelkar (Kontxi) 943 78 70 65
 Taxiak:
 Antonio Fernández 669 15 65 40
 Jesus M. Fernández 607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30
 Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

INAUTERIETARAKO ENTSEGUAK

Gero eta gutxiago falta da inauterietarako, eta Oinarin dantza taldea laster hasiko da karnabaletarako dantza saioetarako entseguekin. Mutilek, ohi bezala, sorgin dantza egingo dute. Norbait interesatuta balego, Andres Arbuluri esatea besterik ez dauka. Ohiko sorgin dantzaz gain, Lantzeko inauterietako dantzak ere egingo dituzte. Parte hartu nahi dutenek, martitzenetan, 20:30ean joan beharko dute Eguzki auzoko lokalean egingo dituzten entseguetara.

BANATZAILEA BEHAR DUGU

Antzuolan Goienkaria eta Bergarako edizioa banatzeko, banatzailea behar du Goienak. Antzuolako banaketaren ardura izango du, eta egubakoitzero banatu beharko ditu aldizkariak. Interesatuak Goienako honako telefono zenbakira deitu dezakete: 943 79 21 00.

BASERRIZ/BASERRI/ Zumaeta baserriak



LIZARRAGAKO BI BASERRI Dokumentuen arabera, 1391n Martin Sanches Çumeheta bizi zen han. Gaur egun, bi Zumaeta daude: Zumaetaazpikoa eta Zumaetagañekoa. Lehenengoa egoera kaxkarrean dago gaur egun. Etxaurrean dagoen oroigarriaren arabera, 1817an berreraiki zuten. Zumaetagañekoak jaitzitako arku bikaina du sarreran; baita upaitegira sartzeko paregabeko ate-egiturak ere. Antzina Zumaeta bakarra ei zegoen, orain Zumaetagañekoa dena. Baina trenbideko tunela baserri azpitik egin zutela-eta, baserriari zati bat jausi eta bi egin zituzten. Zumaetaazpikoa ez da inor bizi; Zumaetagañekoan, berriz, Candido Aranguren. /AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

BOTEPRONTOAN/ Jose Luis Lezeta · Erretiratu

“Udaletxeko obra zuzendari lanian, danetik egin bihar izan dot: iturgin lanak, arotz lanak...”

Abenduan erretiratu zen Jose Luis, urtetan udaletxeko obra zuzendari izan eta gero. Orain, erretiratu bizimoduari neurria hartzen ari da.

Zenbat urte egin dituzu udaletxean lanean?

Hamahiru urte egin ditudut; igeltserua naiz, eta aurretik, 28 urtian, kontratista batekin lanian ibilli nitzan, baiña enpresia pikera jun zanian, paruan geratu nitzan. Antzuolako udaletxian hasteko aukeria euki, eta hantxe ibilli naiz hamahiru urtian.

Herrian obra mordoa dagoen momentuan erretiratu zara. Bai, baina 60 urte egin ditudut eta ailegau jat ja jubilatze

ordua. Herriko obrak, gaiñera, ez dira nere arduria.

Zein lan egiten zenituen?

Danetik, tokatzen zana: iturgin lanak, arotz lanak be bai... danetik.

Manitas samarra izango zara, orduan.


Bueno, aurretik be konstrukzian ibilita nenguan, eta han be danetik egittia tokatzen da.

Zer moduz erretiratu bizimodua?

Oraindik goitzo da horri erantzuteko. Pentsaizu, 44 urte lanian ibilli eta gero, hillabedian ezin horri erantzun. Dana dala, nik uste dot oso ondo moldatuko naizela.

Antzuolan zer falta da?

Ez dot uste gauza asko falta duenik. Martxan daren obra



guztiak bukatutakuan, oso ondo egongo da.

Eta soberan?

Etxeren batzuk igual egongo dira sobran, baiña hobe sobran egotia faltan baiña, ezta?

Baserrian bizi zara orain. Zer dauka baserriak kaleak ez duenik?

Kalian be urte askuan bizi izandakua naiz. Baserrikua naizenez, beti gustatu izan jat baserrixa. Hemengo lasaittasuna asko gustatzen jat; kalia baiña nahixago dot.

Gabonetan zer moduz?

Ondo, nahikua turroi janda; Gabonak ondo pasatzen dira. Urte berrixari zer eskatu jatzu?


Osasuna; premiñarik gehixen egitten dabena horixe da.

LARREA
TABERNA
 Kalebarren 17
 ANTZUOLA

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean
 ANTZUOLA 609 157 131 BERGARA 609 150 164

Tomas Gezalaza
 Apainketarako eta industriarako pinturak
 Paper margotuak
 Moketak eta tapizatuak
 Kalegoi 21
 Tf. eta faxa 943 76 64 07
 Poltsikokoa 616 277 999
 ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
 taberna eta gozotegia

 Buztinzuri 13 ANTZUOLA
 Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaza
 Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa
 Kalegoi 21
 Tf. eta faxa 943 76 64 07
 Poltsikokoa 616 277 999
 ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko urtarrilaren 11 / 82. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Urteko lehenengo merkatuan pezeta euroari nagusitu zitzaion

OXEL EROSTARBE

Euroa indarrean dago urtarrilaren batetik. Urteko lehenengo merkatuan, batez ere pezeta erabili ziren. Herriko dendetan ordea, pezeta eta euroen erabilpena antzekoa da. Arazo gehien Kutzako bulegoan izan dituzte, izan ere, ilara luzeak izan dituzte egunero.

Elgetara ere heldu da euroa. Moneta berriak, Kutzako bulegoan ilara amaigabeak ekarri ditu berarekin.

Plazan astelehenero egiten den merkatua berezia izan zen aste honetan. Izan ere urteko lehenengo merkatua izanda, pezeta eta eurotan ordaintzeko aukera zegoen. Postuetako saltzaileek esan zigutenez, uste baino euro gutxiago erabili genuen elgetarrok.

Herriko denda eta tabernetan jaso genuen erantzuna, ordea, desberdina izan zen. Bertan esan digutenez, pezeta eta euroen erabilera nahiko antzerakoa da.

EUROA ZULODUNA ZELAKOAN

Euroaren etorrerak, berarekin ekarri ditu gertaera bereziak ere.

Herritar askok bezala, euroen poltsatxoak jaso zuen Fernando. Moneta berriak eskuan hartu eta segituan ohartu zen, batek balio handirik ez zeukala. Izan ere, euro bateko txanpona beharrezan, txanponak kanpoaldetik duen arandela bakarrik eman zioten.

Kutzako bulegoan, lanez lepo izan dira, bezeroei izan duten pazientzia eskertzeko, bere diruz erositako boligrafoak oparitzen jardun zuen Txemak.

Egunkaria erosteko orduan ere denetik dago. Julianen esanetan, "gazteak nahiko ondo moldatzen ari dira, nagusi batzuk, ordea, euroa eta pezeta egongo diren bi hilabeteetan, pezeta bakarrik erabiliko dituztela esaten dute". Bezero batek, kartera eman eta behar dena hartzeko esaten omen dio ia egunero.

Tabernetan esan digutenez, kalera betaurrekoekin irteten hasi omen da jendea. Bistan arazoak dituztenek, ezin dituzte txan-



Frantziako euroak Elgetaraino heldu diren arren, pezeta erabili ziren batez ere astelehenetako merkatuan.

pon berriak bereizi eta. Haizea Tabernan, lehenengo egunean, bueltak eurotan hartu nahi ez zituztela eta, zenbait arazo ere

izan omen zituen tabernariak bezero batzuekin.

Eroslen ere bankari lanetan aritu omen ziren aurreko batean,

bezero bat, bera eurotan moldatzen ez zela, eta euroak pezetara aldatzeko eskatzera joan zitzaion eta.



SABIN URZELAI / KUTXA BULEGOKO ARDURADUNA

"Herritarrak ez dira zoratu euruakin, normaltasun guztixekin hartu dabe"

Zelan hartu dau Elgetak eurua, zer baloraziño egingo ziñuke?

Baloraziño baikorra. Abenduan zihar, jende ugari etorri zan euren poltsatuak eskatzera, ekarritako 500 poltsatik 350 inguru banatu giñuzen. Eurua indarrian dagonetik, herritarrek pezeta asko bueltau dituzte, eta komertzian be lehenengo egunetik euruakin normal ibili dira. Komer-

tziuen ugazaba eta bezeruak zoratu barik ibili dira, elgetarrek eurua normaltasun haundiz hartu dabela esan geinke. **Arazorenbat euki dozue?**

Guk lan haundixa eduki dogu, bi moneta erabiltziak, arkeuak eta kontuak egittia zaildu egiten dau eta. Bost euroko billete barik be geratu giñan aurreko astian, baiña momentuz segituan ekarri zokuen zentraletik, aurreran-

tzian ikusi egin bihar. Herritarren gainian, esango neuke, arazo haundixena ekibalentzietan dagola.

Anekdotarik gertatu jatzue?

Holakotan beti izaten dira gertaerak. Jende aurrian Txema egoten da eta berari gertau jako bateronbat. Pertsona batek adibidez, dirua urretan edo pezetatik eman bihar dotsauen galdetu zozkun.

LABUR

Aste honetan hasi dira euskal dantza ikastaroak

Martitzenean hasi ziren ikastaroak frontoi zaharrean.

Entseguetan 50 haur inguru ari dira parte hartzen. Hauek dira entsegu ordutegiak. Eskolaurreko lehenengo eta bigarrenekoak, martitzenetan 16:00etatik 16:30era. Eskolaurreko hiru-garrenekoak eta 1. mailakoak eguaztentean 17:00etatik 18:00etara. 3. mailatik gorako mutilak martitzenetan 17:00etatik 18:00etara eta nekak eguaztentean 18:00etatik 19:00etara.

Baba jana egiteko irteera antolatu du Gaztetxeak

Urtarrilaren 19rako irteera antolatu dute herriko gazteek.

Autobusa antolatuko dute Dimara baba jana egitera joateko. Autobusa eguerdiko 12:00etan irtengo da plazatik, eta bazkari eta autobusaren prezioa 2.500 pezetakoa da.

Izena Haizea tabernan edo Gaztetxeko erantzungailura deituta eman dezakezue (943 78 90 43). Itzulera autobusa, iluntzeko 18:00 aldera izango da. Berrizko jaiak direnez, nahi duenak bertan gertatzeko aukera izango du.

Debaguneko egutegi berria kalean dago

Bailarako euskara elkartearen federazioak, Debaguneko aurtengo egutegia kaleratu du.

Goibeko Kultura Elkarteak Debaguneko partaidea da, eta bera arduratuko da Elgetan egutegiak banatzeaz.

Bailarako erretratu zaharrek osatzen dute egutegia, eta Elgetako bi erretratu daukete bertan. Liburutegian eta Ana Mari liburu dendan, 3 € ordainduta lortu daitezke egutegiak. Goibeko Kultura Elkarteak bazkideei etxera bidaliko diete egutegia.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIXAK

Medikua	943 76 81 93
DYA	943 46 46 22
Gurutze Gorrixa	943 22 22 22
Odol emailiak	943 76 16 24
Hies Ekimena	943 79 26 99
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaillak	943 78 28 00

GARRAIUAK

Taxiak	943 79 12 22
Pesa	902 10 12 10

UDALA

Buleguak	943 76 80 22
Faxa	943 76 82 89
Kirolegia	943 76 82 84
Eskolia	943 76 82 26

BESTELAKUAK

Parrokia	943 76 81 45
San Andres Parrokia	943 20 11 51
Farmazia	943 78 81 50
Goiheko K.E.	943 78 90 85
Goibekokale (Goienkaria)	943 79 92 71
Gaztetxea	943 78 90 43
Guraso Elkartia	943 76 82 26
Ozkarbi K.J.E.	943 76 81 49
Intxorta K.J.E.	943 76 81 46
Ozkarbi Pilota Taldea	943 76 81 49

MEZAK

Zapatuetan	iluntzeko 19:30ean
Domekatan	eguerdiko 12:00etan

IRAKURLIAREN TXOKUA

OHITTURIA ETA SOLIDARITATIA

Gabon kantuak... galtzen doiazan ohitturak dira, lehenauko amama zahar jantzixan zapixa, oin "buff" diralakuak dira, lehenauko abarkak kirol zapatillak... Dana aldatzen doa, lehen etxez-etxe juaten ziranak oin halabiharrez tabernan sartu bihar dira, herrixan daguan jentia bertan dago eta. Hortaz, jendiak nahixau dau, afalaurreko denboria poteuan igarotzia, ohittura zahar bat galdu ez dein zerbait egin baiño. Hala eta be, kantura urtenda, hainbat jende solidariua izan zan Peruko biztanliekin. Danera, 160,9 euro (26.785 pta.) jaso giñuzen medizina bialtze-ko. Honi diru kopuruoni, Gaztetxiak emondako dirulaguntza gehitu bihar jako. Ermuko Urkopunta taldia jasotako dirura batuko dogu guk atarata-kuak, holan euren proiektuari lagunduz. Ziurtasuna daukagu hori diuroi bihar dan lekura iritsiko dala. Eskerrik asko kantari aritu ziñatenoi eta dirua bota ziñutenoi. Hotza pasatziak zerbaitetarako balio dau eta ohitura zaharrak mantentziak be bai.

ELGETAKO GAZTETXIA

IRAKURLIAREN TXOKUA

GOIBEKOKALE-n zure gutuna argitaratzia nahi izanez gero, GOIBEKOKALE-ko buzoian laga edo goibekokale@goiena.com helbidera bialdu.

KULTURA

Gaur gauean, 'Freaky festa' lan berria aurkeztuko du Gaztetxean Betagarri taldeak

O.E.

Izen handiko taldeak ekartzen ari dira aspaldian Gaztetxeoak. Oraingoan, Betagarri taldearen *ska* doinuek izango dute tartea.

Gasteizko taldeak bosgarren diskoa kaleratu berri du, Metak diskoetxearekin. Disko berrian ere *ska* musikan oinarritzen dira kantu gehienak, baina *reggae*-a, *ragg*-a eta beste erritmo kutsakorren ukituak dituztenak ere badaude. Adin desberdinetako jendea dantzan jartzeko modukoak.

Gaueko 23:00etan hasiko da kontzertua. Betagarri-ren aurretik Bermeoko Cyprinidians ska-band taldekoak arituko dira.

Gaur gauean, hortaz, *ska* doinuek gozatzeko aukera paregabea izango dugu Gaztetxean.



ARTIBOIA

KIROLA

Euskadiko Ziklokros Txapelketatik Espainiakora

Jone Muxika eta Aitor Kortazarrek emaitza ezin hobekak lortu zituzten abenduaren 30ean Itsasondon jokatuiko Euskadiko Ziklokros Txapelketan.

Emakumetan hirugarren postua lortu zuen Jone Muxikak. Orain arte mendi bizikleta probatan bakarrik parte hartu izan du Jonek, eta Itsasondoko ziklokroseko aurreneko proba izan zuen.

Aitor Kortazar bigarren geratu zen kadete mailako proban. Aurten ere, Gaur Renault taldean dihardu.

Bi txirindulari elgetarrek Espainiako Ziklokros Txapelketarako txartela lortu zuten. Proba asteburu honetan izango da Duranan. Aitorrek zapatuan izango du proba, arratsaldeko 15:30ean. Jonek, aldiz, domekan, goizeko 10:00etan. Zorte on!



Jende ugari batu zen Intxortako omenaldian

Jende ugari elkartu zen Intxortan, Elgeta eta Elorrioko Askatasunak antolatutako atzoko eta gaurko gudariei omenaldia egitera.

Eguerdarako giro paregabea zegoen. Izan ere, antolatzaileek salda, sagardoa eta txorizoa banatu zuten han batu ziren guztiendako.

Txalaparta soinuek eman zioten hasiera ekitaldiari, urtero moduan bertolari eta trikitilariak izan ziren gero, eta ekitaldi politiko batekin amaitu zen omenaldia.

Urtero moduan, urteko lehenengo domekan elkartu ziren Elgetako, Elorrioko eta Deba ibarreko gainerako herrietako mendizaleak.

Datorren urterako ere gorde dute eguna.

O.E./ ARGAZKIA: LUIS ZABALETA

OSTATU
JAZTETXEA

•Eguneko menua 800 ppta.
•Karta.

Gudarien Bide, ELGETA
Tel: 943 76 80 23

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

TAPEM S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN
ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

ERRETRATU ZAHARRA

Pol-Pol Mendizale Taldekoak Pirinioetan

Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako irteera bateko argazkia duzue oraingo astekoa. Urtero, Aste Santuan, kanpaldiren bat egin izan dute Pol-Polekoek, eta gazte ugari parte hartu izan du azken urteotan egindako irteeretan. Lehen, beharbada, jende gehiago joaten zen. Alboko argazkia 1990 urte ingurukoa da. Urte hartan Piedrafitako kanpinera joan zen mendizale talde hau, eta argazkia Santa Elenako aterpean aterata dago. Horra hor erretratuan agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jon Berasategi, Ibon Bilbao, Aiert Lizarralde, Larrait Mendikute, Aitor Muruamendiaraz, Mirari Osinalde, Virginia Rubio, Arantzazu Iñarra, Leire Gabilondo, Arantzazu Garitano, Karmele Uriarte, Aintzane Larrañaga, ezezaguna, Aitziber Mujika, Saioa Berraondo, Monika Belastegi, Josu Arregi, Patxi Puertas, Txema Arenaza, Onintza Zubia eta Rosa Mari Aranzabal.

Makurtuta: Igor Basauri, Kristina



Romero, Nere Arenaza, Natalia Sevillano, Erkuden Unamuno, Ainhoa Santos, Maite Irizar, Iker Etxebarria, Jose Javier Acedo, Jaime Acedo, Ibon Gantxegi, Jon Ugarte, Aitor Inza, Eneko Ugalde eta Ibon Gabilondo.

Argazkia: Pol-Pol Mendizale Taldea.

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA AILDATU DIRENGAUZAK

Zurraderoko zubia eraikitzen

Duela 15 bat urte eraiki zuten Zurraderoko zubia. Ordura arte Frontotik Matxitegi aldera joateko, nagusiki, Santa Marinako zubia erabiltzen zuten auto gidariek. 1980ko hamarkadaren hasieran, Zurraderoko zubia eraikitzen hasi ziren, eta orain, Santa Marinakoa oinezkoentzako bakarrik da. Zurraderoko zubiak, berriz, trafiko ugari dauka gaur egun.



± 1983 Zurraderoko zubia eraikitzen hasi zireneko Udal Agiritegiaren argazkia. 1980ko hamarkadaren erdialdean inauguratu zuten.



2002 Zurraderoko zubiak berebiziko garrantzia dauka herri barruko trafikoari dagokionez. Egun osoan zehar auto ugari igarotzen dira bertatik.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa


Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

•Seinaleztapena
•Jantziak

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.




3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean

Problemarikgabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune



Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak

Zuen
zerbitzura!

San Juan, 1 A
BERGARA
Tel./ Faxa:
943 76 54 91



GRUPO **RKUZ**

1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

